

Dikazteluko sermoia

PELLO ETXANIZ*

DIKAZTELUKO¹ SEMOIA DELA ETA...

Antzinako tresnen salerosketan ibiltzen den dendari batek euskaraz idatzitako halako esku izkribu zahar bat zuela jakinarazi zigunetik sortu zitzaigun jakinmina asetzearren egindako ikerketen gorabeheren kontaketa da honako hau.

Eskuratu eta irakurri genueneko igarri genion erdarazko idatzi baten itzulpena izan zitekeela, gaztelerazko egitura eta lexikoagatik².

Zenbait galderaren ondoren jakin ahal izan genuen liburu baten barruan agertu zela, eta, behar bada liburu hartantxe ez bazen ere (liburu multzo handi batean agertu zenez inork ez baitzekien ziurtasun osoz, ezta dendariak berak ere), multzo hartaxeko beste liburu berdin batean erdarazko jatorrizko testua aurkitu genuen³.

Erdarazko liburu honen argitaratze data 1778. urtekoa zen⁴. Datu hori liburuaren jatorrizko herriarekin lotuz gero (Dikaztelu) berehala ohartu ginen izan zezakeen garrantziaz, jakinean izanik testuaren gaur egungo kokapenak ez zuela ezinbestean ez liburuaren, ez idatziaren ezta egilearen jatorria ere izan beharrik.

Oraindainoko hizkuntzalari eta historialari gehienek ustetan euskararen galera prozesuaren marra 1778. urtean Lizarra hiritik iparralderantz kokatzen zen⁵. Alde honetatik, beraz, izan zezakeen garrantzia. Ea noiz eta nork idatzi

* Licenciado en Filología Vasca.

¹ Horrela deituko dugu Dikaztelun agertu delako, behar bada bertakoa ez den arren. Lizarraldeko zuzenagoa litzateke, zehatzagoa ez, ordea, zoritxarrez.

² (10) "sobradamente abundantísimo", "por lo consiguiente", eta abar...

³ "Año Christiano, o ejercicios devotos para todos los domingos y fiestas movibles del año" TOMO I.

⁴ "En Madrid: En la Imprenta de D. ANTONIO DE SANCHA, en la Aduana Vieja. Año de MDCCCLXXVIII".

⁵ "Geografía lingüística de Navarra" A. Irigarai (1935) XVIII. mendean apaizen artean izandako zenbait auzitatik ateratako datuekin Irigarai jaunak egin zuen mapan ageri da.

zuen jakitea, zein entzulegori egokitu zitzaion eta antzeko galderei erantzutea izan zen gure lana. Horretaz gain Goinafarrera Hegoaldeko deritzan euskalkiari buruzko zenbait xehetasun ere argi ziezagukeela espero genuen (euskalkiaren hedadura mendebalderantz edota hegoalderantz batik bat, izan ere hizkuntzalaritzako ikuspegi hertsitik lehenagotik ezagun genuen GNH-aren hainbat ezaugarri baieztatu baino ez baitzigun egin).

Konparaketak eginagatik ez zigun argibiderik ematen inorako ere, izan ere euskalki honetatik gure eskuetara iritsitako materialak oso urriak ziren⁶, jakineko toki batzuetakoak, hala Garesko herrian Bonapartek jasoak⁷, nola Muruzabalgo⁸ eta Muzkiko⁹ sermoiak edo antzekoak¹⁰. Ezin zitekeen, beraz, ezaugarri nimiño edo bokalismo hutsetik abiatuz taxuzko iritzirik eman, “ingurukoa” zela erran baizik. Berriro ere egilearen pistari lotuko gintzaizkion, alde horretatik gure helburura iristeko beharreko hariaren bila.

Pistetako bat Dikazteluko etxeke ganbara zen, bestea sermoian bertan ageri den urtea (año 5), kontutan hartuz ANO CRISTIANO-ren 1776ko argitalpenaren barruan agertu zela 1805 eta 1905 urteak ziren hautagai bakarrak, XX. mendeko azken data hori zail samarra iruditzen zitzaigunetz gure ustez 1805 urtea izan zitekeen aukera garbiena.

Liburuaren azken egoitzako Dikazteluko jabeak adierazi zigunetz liburu multzo hori Tomas Etxeberria zeritzon apaiz allotarraren liburutegikoa zen. Delako Tomas Etxeberria Allo herriko semea zen: 1868an jaio, 1894ean apaiztu¹¹; 1924. urtera arte, 30 urtez, Arronitz udaleko kapilau izan; 1924tik 1929ra Artaxonako Jerusalemgo Ama Birjinaren baselizako kapilau eta, azkenik, bere jaioterrira, Allora, erretiratu zen 1954. urtean hil arte. Liburuak, zirudienetz, Dikaztelura Tomas Etxeberriaren familiakoren batek eramango zituen. Baina ez zegoen ziur ezer erraterik.

Tomas Etxeberriak berak idatzi ez zuelakoan geundenez, liburuak zein tokitan lortu ote zituen jakitean zegoen gakoa. Jarraitzeko moduko hari muturrak herri ezberdinetan kokatzen ziren: Dikaztelun (liburuak agertu ziren herria), Arronitzen (Tomas Etxeberriaren 30 urtetako kapilautza), Artaxonan (Tomas Etxeberriaren bigarren pausaleku), Allon (Tomas Etxeberriaren jaioterreri eta azken urteetako erretirotokei ere). Bagenekien hari horiek etenak edo alferrikakoak izan zitezkeela, liburuaren jatorria besteren bat izan zitezkeela, auskalo zein, baina genuenaren ondoren abiatu ginen.

Dikaztelun XIX. mende hasierako bueltan apaiz egondako apaizen zerrenda luzea eskuratu¹² eta guztien artetik Antonio Redin y Goienetxe erretore jauna AÑO CRISTIANO-ren 1778ko argitalpen horretako harpide zela baieztatu ahal izan genuen¹³, gutxienez hala izan zen 1801eko Maiatzaren 31n bat-

⁶ Lizarraga Elkanokoa izan ezik, Beriainen “Tratado de oír misa...” zaharregia baita konparaketarako.

⁷ “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 1982, 133-228. F. ONDARRA.

⁸ “Manuscritos vascos de Muruzabal (Navarra)”, J. SATRUSTEGI.

⁹ “Textos vascos del siglo XVIII en Tierra Estella”, M. LEKUONA.

¹⁰ “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”, *FLV* 53, 1989, 97-144, eta “Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII)”, *FLV* 55, 1990, 73-121.

¹¹ Archivo Diocesano de Pamplona, caja 566, nº 3.

¹² Bataioen liburutik.

¹³ Aurrez aipatutako “Año Christiano...”-ren azken orrietako harpide zerrendan dago.

batean hil zen arte. Bere ondorengoren batek izan behar zuen parrokia horretakoa izatekotan¹⁴; bere ondorengo erretore Lukingo semea zen Juan Santos Sagararte izango zen Iruñeko artxibategian jakin ahal izan genuenez. Hala ere horrek ez zigun gehiegi balio izan, garai hartan dozena bat apaiz batera egon baitzitezkeen Dikaztelu bezalako herri txiki batean ere. Gainera, gure zoritxarrerako, garai hartako kaligrafia konparatzen hasi eta frogatu ahal izan genuen zein idazle “kamaleoi” izan zitezkeen apaiz haiek idazten zutenaren helburuaren arabera, zenbait jakituni galdetuta ere ez zigun ezer argitu alde horretatik. Beste alde batetik Tomas Etxeberriak aurretik aipatutako Arronitz, Allo edo Artaxonan eskuratutako liburuak ere izan zitezkeen. Herri horietako apaizen berri ere izan genuen arren¹⁵ ez zitzaigun gure kontua argitu. Gainera, zergatik ez, beste jatorriren bat ere izan zezaketen.

AZTERKETA

Azterketa honetan hasteko Goinafarrera Hegoaldeko euskalkiaren zenbait ezaugarriren berri eman beharra dago, neurri handi baten sermoi honetako hizkerak betetzen dituzenez. Ez baitago zalantzarik euskalki horretan sailka dezagun.

– Oso ezaguna da aditzen lehen aldiko marka eza, bukaerako n-rena, alegia. Hemen ere salbuespenik gabe betetzen den ezaugarria da.

– Aditz nagusia eta aditz laguntzailea elkartuta. Ia-ia beti betetzen da, salbuespen batzuk kenduta.

– Genitiboa + aditz izena, iparraldeko euskalkietan antzera, erdietan baino gutxiagotan betetzen da, subjuntiberako aditzen aurrean eta bostetik bi aldiz besterik ez.

– Nork kasuko pluralak, erdi nahasian ditu.

– Norekin kasuan -ki erlazio atzizkia erabiltzen du (-qui). Beti.

- Zertaz/Nortaz kasuko erlazio atzizkia -s da -z-ren orde. Betetzen da:

(53) ausilioayes.

– “Bat” hitza izenari eransten zaio -at itxuraz, kasu bakar batean bada ere:

(4) Articuloat.

– Erlatibozko perpausen ordena desegokia aipatu ohi da euskalki honetako zenbait idazleri buruz eta, oraingo honetan ere, horrelaxe da, nahiz eta erdaratik zuzenean egindako itzulpen baten zirriborroa izatea nahikoa aitzakia izan daitekeen.

¹⁴ Manuel Garnika izeneko apaiz bat ere agertzen da bataioen liburu horretantxe 1797an, ziur aski Lizarragako bikaria (Izagaondokoa) 1789an eskatu zuen berbera, itxuraz euskalduna eta Dikazteluarra “Tres testimonios del vascuence en el siglo XVIII”, *FLV* 47, 169-170, José Andrés GALLEGU.

¹⁵ Dikaztelun ez ezik, Allo, Artaxona eta Arronizko bataio liburuetan ere begiratuz beste hamar harpide aurkitu ditugu.

GRAFIA

Grafiari dagokionez oso nabarmena da egilearen zalantza, hitz berberak bi era ezberdinetan ere idazten baititu, bai euskal jatorrizko hitzekin (9, 20, 68 “vere” / 21, 49, 54, 57 “bere”), bai erdal jatorrizkoekin (1, 17, 20, 32, 62, 72 “vorondate” / 21, 46 “borondate”).

Hemen gorabehera batzuk baino ez dira aztertuko.

b/v

Erdal jatorriko hitz gehienetan v-a hautatzen du:

(6, 52) aprovecha, (11) victima, (14) Evangeliari, (15) motivo, (17) verdadero, (19) por ventura, (22) atrevitu, (34, 37) vondade, (56) errecivicegatic, (60) esclavitudea.

Salbuespen lirateke lehenago aipaturiko “vere” eta (68) vici, euskal jatorrikoak izanik.

Euskal nahiz erdal jatorrikoak ageri dira b-z:

(13, 67) baicic, (12, 13, 14, 67) becatorearena, (66) nombrarengatic, (1, 3, 4, 5, 6, 9, 18, 20, 22, 30, 32, 62) salba(tu), (2, 3) baize, (3, 20, 28, 34, 37, 44) baze/bazu/balira, (6) bear,

(7) laburrena, (10) sobradamente abundantisimoac, (11) becela, (14, 18) baña, (14) obedecizen, (21) pruebac, (24) pobreraco, (25) oprobioric, (26, 29, 30) bat, (33) agrabio, (35) berze,

(35) bazendaco, (52) berac, (59) esclaboac.

ñ

(1) gañan, (14, 18, 47, 51, 58) baña, (22) guiña, (28) siñestaturic, (36) eiñendio-nic, (49) ceñec.

i/y

(1, 19, 20, 23, 29, 32, 34, 36, 38, 41, 46, 55, 70) Jangoico / (33) Jangoyco, (2) bai-ze /

(3) bayzue, (61) nai / (67) nay, (53) ausilioayes, (48) ayendaco, (42) oray, (7, 19, 36) geyago,

(2, 24) jayo, (1) deizen, (2) naiz, (20, 22) guindaizen, (31) ein, (68) gaistoa, (70) izanzaisten.

ge-gi/gue-gui

(1, 29) gizon / (3, 23, 28, 30, 45) guizon, (7, 36) geyago / (19) gueyago, (60) guelditu, (48) egui, (45) consiguiente, (22) guiña, (20, 22) guindaizen, (9) eguinditu.

g/j

(42) eregia, (15) ebangelia, (5) escogituena, (38) justoa, (60) jauna, (2) jayo, (1) jangoico.

qui-que

(63) laguntasunarequi, (62) guciarequi, (51, 53) emancizquiren, (44) saquitea, (5, 28, 30, 35, 42) arquidaiquen, (38, 41) queja, (38) iducoluquete, (25) andie-nequi, (19) inzuquea, (10) heriocearequi, (9) pasioarequi.

Atentzioa ematen du (55) “esquetaco”-k, bere logikaz “escuetaco” izan beharko bailuke (behar bada diptongo baten moduan ahoskatuko zuelako?).

f

(4) fedean, (12) ofrecitu, (19) manifestacera, (24) sufrizezala, (25) finalmente, (33) formatucodu, (36) ofensa, (41) imfernu, (57) frutue.

ce-ci/ze-zi

“ce” hitz hasieratan eta tarteetan 23 aldiz / “ze” tarteetan 26 aldiz, “ci” 38 aldiz / “zi” 4 aldiz.

il/ill

(43, 45) ilzela, (39) ill arrengetic (ondorengo hitza bokalez hasten delako).

h

(3, 60) here, (10, 54, 57, 67) heriocea, (53, 56) hizan / (49, 70) izan.

s/z

(13, 35, 56) ez, (39, 43, 52, 59) ezpaze-ezela-ezninze-ezu / (4, 15, 14, 67) estire-estiotte-estutela.

Frikariak ondorengo hitz hasierako kontsonante leherkari ozenak gortu egiten dituzte “ez+baze>ezpaze”, “ez+dutela>estutela”, eta “t” aurrekoak “z>s”. Ezin jakin liteke grafiagatik “ez+zela>ezela” eta “ez+zu>ezu” frikari izatetik afrikatura igarotzen ote diren.

SINTAXIA

Erlatibozkoak

- Erlatibozko menpeko ugari ageri da:

(5) arquizendena da erratenduena, (6) salbatubeardutena aprobechacendutenac, (8) condenacendirenac, (12) guregatic ofrecituzena, (18) gure malicia da impedicenduena, (31) dudatuco duena, (33) agrabio eitendinac, (36) ofensa geyago eiñendionic.

– Lehenaldiko hitz bukaerako n markarik ageri ez denez oso ongi bereizten dira erlatibozkoak:

(53) emancizquiren ausilioayes → Erlatibozkoa.
(51) emancizquire medioc → Ez da erlatibozkoa.

– Honako hau erlatibozko modala da:

(11) erratenduen becela (“becela” frikaria delarik, bestela “que” idatziko bailuke).

– Beste hauek ere ezkutuko erlatibozkoak:

(31) ein espiritu malignotacoa, (47) egui consuelo anditecoa, (48) capaz desesperacioatecoa.

– Honako honetan berriz “ceñec... ..aditza+-en” erako egitura erabiltzen du:

(49) ayendaco guciendaco ceñec izanenduten desgracia beren...

Konpletiboak

(7, 32, 46) dela-direla, (23, 24, 26) incediela-jayo cediela-sufrizezala, (29) separatu duela,

(33) etorzela, (45) ilzela, (67) estutela-uzidezala-vicidadiela.

– Perpaus konpletibo horiez gain subjuntibera ere erabiltzen du zenbait alditan zentzu berbera emanaz, itxuraz perpaus finalak diruditen arren:

(32) Jangoicoaren vorondatea dela gucion salbagaizen, (46) por lo consiguiente dela Jangoicoaren borondatea gucioc salbagaizen, (50, 61) Jangoicoac naidu ni salbanadien, (55) Jangoicoac naizue ni salbanindadien, (70) Jangoicoaren vorondatea da izanzaisten gucioc sanduac.

– Bada perpaus bat aurreko arau horretatik desbideratzen dena:

(56) nasnue hizan salbatue (bere logikaz “nainue salba nindadien”).

Finalak/Xedezkoak

– Aurreko konpletiben itxura formalak dutenak (subjuntiberaz), baina helburu garbia adieraziz erranahiari dagokionez:

(20) inzuquea Jangoicoac gueyago manifestacera vere vorondatea gu salbaguin-daizen?,

(22) uzibazu ... pruebac bere amorearenac eta bere deseoarenac gu salbaguin-daizen.

Kontzesiboak

– “Nahiz...” “ba...ere” bi erak batera erabiltzen ditu:

(2, 3) Considerazazu naiz Jesuchisto Jayo baize, padezitu bayzue eta il baze here.

Galderak eta zehargalderak

(20) inzuquea Jangoicoak gueyago... gu salbaguindaizen? (Galderako aditzari bukaera berezia ezarri dio).

(42) Considerazaze oray arquidaiquen.

Kausalak

– Erakusleez baliatuz:

(15) motivo onengatic, (40) arrengatic.

– Erdara hutsean:

(45) por lo consiguiente

– Aditz-izenez:

(26) erredimiceagatic

– “Cerengatic” perpaus hasieran kokatuz:

(52) cerengatic ezninze aprobechatu, (59) cerengatic naizue guelditu.

Konparaketak

(35, 36) eregia andiagocoric ofensa geyago eiñendionic.

– “Nola” erabiliz:

(40) ill arrengatic lo mismo nola SanPedrorengatic (Gaur egun “SanPedrorengatic bezala”).

(42) eregia andiagocoric nola pensacea (Gaur egun “pentsatzea bezalakorik”).

Baldintza-ondorioak

– Batzuetan “ba-”, bestetan “bai-” edo “bay-” erabiltzen ditu.

– Baldintza erreala:

(20, 22) uzi bazu... atrevituco guiña, (39, 41) ezpaze... quejatucoze.

– Baldintza hipotetikoa:

(37) balira que... iducoluquete (baldintzako hitzetik banandurik agertzen da “que” harrigarri hori).

Zertara/Zertan

– Ez dago argi “zertan” edo “zertarako” zentzua duten:

(19) inzuquea... geyago manifestacera, (22) atrevituco guiña escazera.

Adbersatiboak

(14, 18, 51, 58) baña, (13, 67) baicic.

ADITZA

– Aditza elkartzeko joera dauka, aditz nagusia aditz laguntzailearekin batera idaztekoa, alegia. Oso aditz gutxi daude banandurik:

(24) jayo cediela, (31) dudatuco duena, (22) atrevituco guiña, (29) separatu due-la.

– “Ote” partikula galderetan tartekatzen denean ere:

(30) arquituco oteda.

– Beste kasu guztietan, asko dira, beti elkartu egiten ditu, nahiz subjuntibera, ahalera, indikatiboa edo agintera izan, nahiz perpaus nagusi, menpeko edo koordinatu izan.

– Baldintza hipotetiko kasu bakarrean ere ondorioa erabat elkartuta dago:

(38) iducoluquete. (idun aditza da).

– Egin aditza era askotan ageri da:

(19) inzuquea, (23) incediela, (36) eifñendionic, (9) eguinditu, (66) eitendut.

– Bigarren pertsona pluralaren ikurra “zue” > “ze”:

(43) Considerazaze.

DEKLINABIDEA

– “Jangoiko” hitzaren deklinabideari dagokionez:

Noren kasuan behin mug. sing.:	Gehienetan mugagabe:
(33) Jangoycoaren	(1, 36, 38, 41, 45, 70) Jangoicoren

Nor, nork eta nori kasuetan beti mug. sing.:
(55, 19, 20, 50, 29, 23) Jangoicoac-Jangoicoa-Jangoicoari...

– Nor plurala	Nork plurala
(4) guciec	(14) guciec
(6) dutenac	(37) guciac
(46) gucioc	(49) ceñec

– Norekin kasuan beti “qui” atzizkia erabiltzen du.

– Norentzako “norendako” eran:

(45) guciendaco/ayendaco, (47) bazemdaco, (35) berzebazendaco.

– Genitiboa jartzen du bi aldiz aditzaren aurretik (berez aditz izena izan zitekeenaren aurretik, alegia):

Hauetan bai

(1) gizonan salbadeizen

(32) gucion salbagaizen

Hauetan ez

(20) gu salbaguindaizen

(46) gucioc salbagaizen

(26) gu erredimiceagatic

– Aditz izenak gutxi dira, kontutan hartuz subjuntiberak ordezkatzeko duela gehienetan.

Nor kasuan:

(43) pensacea

(44) saquitea.

Zergatik kasuan:

(26) erredimiceagatic

(57) erreciviceagatic

– Gainera, badira bi aditz izen nahikoa berezi besteen artetik, nolabaiteko moduzko kutsua dutenak:

(47) consuelo anditecoa, (48) capaz desesperacioatecoa.

KONPARAZIOA

XIX. mende hasierakoa delako ustean¹⁶ garai horretakoekin konparatu beharra dago, honela bada, Bonapartek bildu eta Ondarrak argitaraturiko Elkanokoa, Oltza eta Garesko testigantzak¹⁷, Muruzabalgo sermoiak¹⁸ eta Muzkiokoak¹⁹ alderatu zaizkio.

Konparaketa egiteko harturiko irizpidea inguruko azpieuskalkiekin hiru talde egitekoa izan da, Elkanokoa, Gareskoa eta Oltzako (Oltza eta Goñi), Bonapartek bezalatsu.

Aurrena sermoiak aipaturiko azpieuskalki bakoitzarekin dituen antzekotasun esklusiboak²⁰ zehaztu dira:

¹⁶ 1805eko urtarrilaren 13a, igandea. Orriko ezker aldean zeharka latinez idatzita dagoen “Dominica im() octabam Epifanie, año 5,,” honetatik adituek diotenez, apaizek, alegia. Aipatu beharra dago zalantzatan ibili zirela abenduaren 30a izan ote zitekeen, izan ere erderazko “Año christiano”-n garbi dio “Entre Navidad y Epifania”. Baina hala ere, beraien ustez urtarrilaren 13an izanen zen, “imp octabam” edo “imfr octabam” irakur daitekeen ikurra ongi interpretatuz gero. Urte hartan Errege eguna igandea suertatu izana ere interpretazio honen alde dagoela azpimarratu behar da.

¹⁷ 1869koak izanik, hizkuntzaren egoera aldatua erakus zezaketenak.

¹⁸ Hauek bai guti gora behera data berekoak, 1800 ingurukoak.

¹⁹ 1770etik 1800 bitartekoak.

²⁰ Besteekin ez, alegia.

A) Elkanokoarekin²¹ bat datozenak (besteekin ez):

1. “imfernu” (41) nahiz eta Elkanon “infernū” izan -m- n-ren ordeztar tekatu gabe, dirudienez besteetan “infernū” erraten baitzen.

2. “zaisten” (70), beste bi azpieuskalkietan -z-rekin ageri dena.

Biak ere ez dira oso bereizgarriak, “imfernu”-tik “infernū”-rako aldaketa oso erraza baita hirurogei urteren buruan gaztelerarekin ikutzen zeuden euskalkietan. Eta “zaisten” adizkiari dagokionez, har bitez kontuan “s” eta “z”-ren grafien artean sermoilariak dituen zalantzak.

B) Oltzakoarekin²² bat datozenak (besteekin ez):

3. “guindaizen” (20, 22), besteetan “guindazen” dena.

4. “becela” (11), besteetan “becala”, “bejala”, “bezala”.

Berriro ere ez ditugu batere bereizgarri, izan ere aurrenekoan subjuntiboko bokale soila da eta ahaleretan edozein azpieuskalkietan aurki liteke “gindaiz-” erakorik, eta bigarrena berriz behin bakarrik agertzen da sermoian eta, Muruzabal eta Muzkiko sermoietan forma batetik bestera igarotzeko izugarrizko joera ikus liteke.

C) Gareskoarekin²³ bat datozenak (besteekin ez):

5. “dire” (4, 7, 8), besteetan “dere” (gaur egun batuan “dira”).

6. “zizquire” (51) eta “cizquiren” (53), besteetan “-zki-” ordeztar “-ti-”.

7. “ene” (53) eta bitan (54), “naure” (66), besteetan “nere” eta “neronen”.

8. “cerengatic” (52, 59), Garesen 1869an “zengatik”, besteetan “zergatik”.

9. “jayo” (2, 24), besteetan “sayo”.

10. “escogitu” (5), eta “jauna” (61), besteetan “eslejitu” eta “jona”.

11. “gizonan salbadeizen”²⁴ (1), Garesen “Jainkoan naitzea” bezalakoa, behar bada (Jainkoa maitatzea).

Horien artean bereizgarri izan daitezkeenak daude, batez ere bi lehenengoak. Bietan garbiena “-zki-” pluralgilea da, inguruko azpieuskalkietan ez baita erabiltzen Nor-Nori-Nork erako aditzetan.

Hain bereizgarritzat jo ezinezkorik ere bada; hala “escogitu”, gaztelerazko jatorrizkoan “escogidos” jartzen duenez; nola “jauna”, “jona” formatik oso hurbilekoa denez.

Aurreko konparaketa horien ondorioz hiruretatik Gareskoak dirudi hurbilena. Baina bada aurkakorik ere.

D) Gareskotik urruntzeko arrazoiak:

12. “saquitea” (44), Elkanon eta Oltzan bezala, Garesen “jakin”. Garesen horrelako aditz guztiak dira “j-”, Elkanon eta Oltzan guztiak “s-”, sermoian bi adibide urritik “jayo” eta “saquitea” bietatik dugu.

13. “Jangoico” (sermoian hamahiru aldiz ageri da), Elkanon eta Oltzan bezala, Garesen “Jainko” baita.

²¹ Hegoekialdeko azpieuskalkia.

²² Mendebaldeko azpieuskalkia.

²³ Hegoaldeko azpieuskalkia.

²⁴ Bost aukeretatik bitan (1) “gizonan salbadeizen” (32) “gucion salbagaizen”.

14. “siñestaturic” (28) Oltzan bezala, Elkanon “sinestatu”, Garesen “kreitu”.
 15. “-ki” (Norekin kasuaren bukaera guztiak n gabe ageri dira sermoian) Oltzan eta Elkanon beti gertatzen zen bezala, Garesen “-ki” eta “-kin” alternantzia zegoela baitirudi.

E) Gareskora hurbiltzen duten beste zenbait parekotasun:


16. “gañan” (1) Elkanon eta Garesen bezala, Oltzan “gañen”.
 17. “au” (28), “orrec” (61), “arregatic” (40) Garesen eta Oltzan bezala, Elkanon “gau, gorrek, ...”.

F) Azkenik, inon ere aurkitzen ez direnak(?):

18. “izanen” (49), 1869ko testigantzetan “izain”, “nadien” (51, 61) bezalako subjuntiboak, azpieuskalki guztietan “nayen” berankorragoak ageri baitira. Bietan aldaketak logikoak direla dirudi.
 19. “deizan” (1), Elkanon “daitzen”, Garesen “daizten”, Oltzan daizen”, eta “cediela” (23, 24, 26) Gares eta Elkanoko 1869ko “zayen” erak “zadien” zaharra iradokitzen du.
 20. “ninze” (52n, bi aldiz), Elkanon eta Garesen “nitza” eta Oltzan “nitze”.

Mapa²⁵ eta ondorioa

Konparaketak Gares aldera seinalatzen digula dirudi, bete-betean ez bada ere. Behar bada Lizarra aldeko herriren batera, Iruñea aldera baino errazago.



²⁵ Konparaketako zenbaki berberak dira dagozkien azpieuskalkietan daudenak.

HIZTEGIA

abundantisimo	erredencione	laguntasun
admititu	erredimice	lo (gaztelerazko
agrabio	errescate	artikulua)
aita	esclabo	malicia
amore	esclavitude	maligno
andi	escogitu	manifesta(tu)
aniz	espiritu	medio
aprovechatu	esquetaco	mismo
arquitu	estado	mombra
articulo	eta	motivo
atrevitu	eterno	mundu
au, onec, onlaco	etor(ri)	nai, nay, nas, naiz
ausilio	evangelia	ni, naure
baicic	ez, es-	nola
bai, bay	fedede	numero
baña	finalmente	obedeci(tu)
bat, -at	formatu	obra
bazen, bazem-	frutu	ofensa
(batzuen)	gaisto	ofrecitu
bear	galdu-	oprobio
becatore	gaña	oray
becatu	gastu	orrec orren ortaco
becela	gatic	orgatic
berac	geyago	orla
bere, vere	gizon, guizon	ote
berze	gracia	padezitu
borondate, vorondate	gu	pasio
capaz	guci, guzi	pensacea
ceiñec	guelditu	pobre
cer, cerengatic	gueyago	por
condenacio	guruze	precio
condenatu	here	prueba
considera(tu)	herioce	que
consiguiente	hizan, izan, izanen	queja
consuelo	idea	quejatu
contra, conta	iduco (idun)	salba
deseo	il, ill	salbacio
desesperacio	imfernu	salbadore
desgracia	impedi(tu)	salbatu
desprecio	jangoico	sanctificacio
dudatu	jauna	sandu
edo	jayo	SanPablo
egui	Jesuchisto	SanPedro
eguín, eiñen, eiten, in	Juan	saquite
eman	Judas	separatu
ene	juramentu	sincero
eregia	justamente	siñestatu
erran, erranen, erraten	justo	
errecivi	labur	

sobradamente	triste	vici
solamente	uzi	victima
su	ventura	vondade
sufri(tu)	verdadero	

BIBLIOGRAFIA

- BERIAYN, J., "Tratado de como se ha de oir missa..." (facsimil-a) Lur argitaletxea, Donostia, 1980.
- IRIGARAI, A., "El tratado de oir misa euskérico, de Beriayn, abad de Uterga", *FLV*, 2, 291-294. "El euskera en Zufia", *RIEV*(?), Iruña, 1932.
- LEKUONA, M., "Textos vascos del s. XVIII en Tierra Estella", *FLV*, 15, 369-390.
- ONDARRA, F., "Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi", *FLV*, 39, 133-228.
- SATRUSTEGI, J. M., "Contribución al fondo de textos antiguos vascos", *ASJU*, 1978-1979, XII-XIII, 225-245.
- "Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos", *ASJU*, 1981, XV, 75-104.
- "Manuscritos navarros de Muruzábal (Navarra)", *ASJU*(?), 5-23.

1

Domca. im(?) octabam Epifanie: año 5,,

Erant Joseph et Maria, Mater Jesu. Luc() C. 2,,

- 1 Jangoicoren vorondatearen gañan gizonan salbadeizen. Considerazazu naiz Jesuchisto Jayo baize, padezitu bayzue y eta ilbaze here guizonen/-onaren salbacioagatic estire orgatic guciec salbatuco. Articuloat gure fedean arquizendena da erratenduena numeroa escogituzena, edo salbatubeardutena aprovechacendutenac erre-dencionea dela laburrena eta direla aniz geyago condenacendirenac.
- 10 Salbadoreac eguinditu gastu guciac vere pasioarequi eta vere heriocearequi sobradamente abundantisimoac, erratenduen becela Sn. Juanec, dela Jesuchisto victima guregatic ofrecituzena Aita Eternoari gure becatuengatic, eta ez solamente gure becatuengatic, baicic, mundu gucico becatuen gatic; baña estiote guciec obedecizen Evan-geliari erratendu SanPabloc, eta motivoonengatic estire guciac salbacen.
- 20 Vorondatea Jesuchistorena da sinceroa eta verdaderoa baña gure malicia da impedicenduena gure salbacioa por ventura inzuquea Jangoicoac gueyago manifestace(ra) vere vorondatea gu salbaguindaizen? Uzibazu Jangoicoac gure borondatera pruebac bere amorearenac eta bere deseorenac gu salbaguindaizen; atrevituco guiña escazeraz Jangoicoari incediela guizon gure amoreagatic, jayo cediela pobreraco estadoan, eta sufrizezala pasioa
- 25 desprioric eta oprobioric andienequi; eta finalmente gure amoreagatic ilcediela guruzebatean gu erredimiceagatic?
- 30 Bada siñestaturic auguciau, arqutuco oteda guizonem bat erranenduena Jangoico onec separatu duela gizonem bat mundu guzian salbacioc? arqutuco oteda guizon()

ein espiritu malignotacoa dudatuco duena Jangoicoaren vorondatea de la gucion salbagaizen, cer idea formatuodu onlaco agrabio eitendinac Jangoycoaren vondadeari, bazen daco etorzela Jangoicoa
 35 mundura eta berzebazendaco ez; arqutucoda eregia andiagocoric ofensa geyago eiñendionic Jangoicoaren vondadeari? bada orla balira que, condenatu guciac iducoluquete queja justoa Jangoicoaren conta.
 Judas dago condenaturic eta ezpaze Jesuchisto ill
 40 arrengetic lo mismo nola SanPedrorengatic, justamente quejatucoze infernuan Jangoicoaren contra. Considerazate oray arquidaiquen eregia andiagoric nola pensaceca Jesuchisto ezela il guciongatic.
 Dabada gure consueloric andiena, saquiteca Jesuchisto ilzela guizon guciengatic eta por lo consigui-
 45 ente dela Jangoicoaren borondatea gucioc salbagaizen: egui consuelo anditecoa, bazemdaco baña egui tristea eta capaz desesperacioatecoa ayendaco guciendaco ceñec izanenduten desgracia beren
 50 condenacioarena. Jangoicoac naidu ni salbanadien eta ortaco emanizquire medioc, baña ni galduninze, cerengatic ezinze aprovechatu berac emancizquiren ausilioayes, ene salbacioa hizanbearzu obra bere heriocearena; eta ene condenacioa da ene
 55 esquetaco obra. Jangoicoac naizue ni salbanadien, eta nic nasnue hizan salbatue, ez erreciveagatic frutue bere heriocearena.
 Emanzue precioa Jesuchistoc errescatearena, baña esclaboac ezu admititu precioric, cerengatic naizue
 60 guelditu esclavituden.

Orrec Jauna naidu ni salbanadien, nic here naidu(t) vorondate guciarequi salbatu orren graciaren laguntasunarequi.

vivo ego dicit Dominus Deus, nolo mortem impii,
 65 set ut combertatur impius á via sua et vivat. Eccequil cap.33., Juramentu eitendut naure mombrarengatic estutela nay heriocea becatorearena, baicic uzidezala vere vici gaistoa eta vicidadiela.
 Hec est voluntas Dei sanctificacio vestra. Thesalonicen
 70 4., Jangoicoaren vorondatea da izanzaisten gucioc sanduac:

LABURPENEA

“Goinafarrera Hegoaldeko” deritzan euskalkian idatzirik Dikaztelun agertu berri den sermoi baten azterketa da hau.
 Lehendabizi, 1805ean gaztelarazko “Año Christiano”-tik euskaraturikoa dela adierazten da, eta non eta norik idatzi ote zuen ikertzen da. Gero, grafia, sintaxia, aditza eta deklinabide atzizkiak sailkatzen dira. Azkenik, inguruko azpieuskalkietan ezagun den hainbat ezaugarriekin egindako konparazioaren bidez, Lizarra inguruko euskararen idatzirikoa izan litekeela aipatzen da.

RESUMEN

Este artículo es un trabajo sobre un sermón recientemente aparecido en Dicastillo que está escrito en el dialecto denominado “Altonavarro meridional”.

En principio se señala que fue traducido al euskera el año 1805 partiendo de un “Año Christiano” castellano, y se trata sobre su posible autor y localización. A continuación se clasifica la grafía, la sintaxis, las flexiones verbales, la declinación y el vocabulario empleados. Finalmente, mediante la comparación con algunas características conocidas de los subdialectos más cercanos, se apunta la posibilidad de que pueda ser escrito en el euskera que se utilizaba en los alrededores de Estella-Lizarra.

RÉSUMÉ

Cet article est un travail sur un sermon récemment apparu à Dikaztelu qui est écrit dans le dialecte appelé “Altonavarro meridional”.

Au début du texte, l’on signale qu’il fut traduit à l’euskara en l’an 1805 en partant d’une “Año Christiano” castillane et l’on s’étend sur son éventuel auteur et localisation. Ensuite, l’on classe les graphies, la syntaxe, les flexions verbales, et le vocabulaire employés. Finalement, au travers de la comparaison avec certaines caractéristiques connues des sous-dialectes plus proches, l’on envisage la possibilité qu’il soit écrit dans l’euskara que l’on utilisait aux alentours de Estella-Lizarra.

ABSTRACT

This article is about a sermon written in “Southern High Navarrese” dialect which recently appeared in Dikaztelu.

The article mentions that the sermon was translated from “Año Christiano” and it also refers to its possible author and location. It follows a full analysis of its orthography, syntax and verbs together with vocabulary and declination. Finally, by means of comparison with known features of other subdialects, the author hints that it could have been written in the dialect common in and around Estella-Lizarra.

MEDITACION

Saber la voluntad que tiene Dios de salvar á los hombres.

PUNTO PRIMERO.

Considera que aunque Jesu-Christo nació, padeció, y murió por la salvacion de todos los hombres, no por eso se salvarán todos. Uso de los artículos de nuestra fé es, que el número de los escogidos, esto es, de los que se han de aprovechar de la redencion, es el mismo que el número de los que se condenan. El Salvador ha hecho todos los gastos sobrecabantes; él es, dice San Juan, una víctima de propiciacion por nuestros pecados; y no solo por los nuestros, sino tambien por los de todo el mundo. Pero no todos obrarán al Evangelio, dice San Pablo; y he aquí por qué no todos se salvarán. La voluntad del Salvador es sincera; pero nuestra malicia impide el que sea eficaz. ¿Por venimos postra Dios darnos puecos mas claras, y mas fuertes del deseo que tiene de nuestra salvacion? Su Magestad ha hecho por salvarnos, mas de lo que nos merecamos á esperar, y á creer. Si hubiera dexado á nuestra eleccion el que le pidiéramos pruebas de su amor, y de la voluntad que tiene de salvarnos, ¿hubiéramos jamas osado, nos hubiera venido jamas al pensamiento posible que se hiciese hombre por nuestro amor, que naciera en el estado mas pobre, y mas despreciable, que padeciera lo que padeció, que se hubiera de oprobarnos, en fin, que este Dios hombre muriera en una Cruz por redimirnos? Y despues de esto, ¿habra algun espíritu tan carravajante, que imagine que Dios ha querido excluir del beneficio de la redencion á un solo hombre? ¿Habrá algun genio tan maligno que se atreva á dudar de la sinceridad de la voluntad que tiene Dios de salvar á todos los hombres? ¿Qué idea se formaría de la bondad, y aun de la justicia de nuestro Dios, si exhortara de una manera tan viva, tan patética,

AÑO CHRISTIANO,
Ó EXERCICIOS DEVOTOS

PARA TODOS LOS DOMINGOS, DIAS DE QUARESMA,
Y FIESTAS MOVIBLES DEL AÑO

Contiene la historia ó explicacion de quanto hay mas particular, é instruído en tales dias; algunas Reflexiones sobre la Epístola; una Meditacion despues del Evangelio de la Misa; con algunos Exercicios prácticos, ó Propósitos alagables á todo género de personas:

TRADUCIDO DEL FRANCÉS AL CASTELLANO

POR EL DOCTOR DON JOAQUIN CASTELLOTT,
Capellan Doctoral de S. M. en su Real Capilla
de la Encarnacion de Madrid:

Añadido con la traduccion exácta de las Epístolas, y Evangelios para la mas perfecta inteligencia de las Reflexiones, y Meditaciones que hace el Autor sobre el texto sagrado

POR DON JUAN JULIAN CAPARROS,

Doctor en ambas Derechas, Catedrático de Toledo, Rector,
y Capellan Mayor del Monasterio de Religiosas Agustinas de Santa
María Magdalena de la Corte de Madrid,

TOMO I.

DESDE EL PRIMER DOMINGO DE ADVIENTO
hasta el segundo Domingo de Quaresma.

PRIMERA EDICION.

MADRID, MDCCXCI.

EN LA OFICINA DE DON BENITO CANO.

- et in apivita maligra tunc dicitur deus in Jan-
 guisaveri. Verondatem de la guion Salbacionem, cca
 idea formativoda onlao agribio ccciditioe Janpi
 coarcti vondacari, barum daco obreola Janpivina
- 35 mundura eta dicitur daco az, axquiditudo coarcti
 andigivioi ofera geygo ccciditioe Janpivionem
 vondacari? bada sola balia juo, condonati pucio
 iducolugueti quia lutoa Janpiviorum contra.
 Juda daco condonati eta copae Janpivina ill
- 40 arcepari lo mario sola Janpiviorum, iustitiam
 et geygatoz impenitiam Janpivionem contra. Consi
 dorente axay axquiditudo coarcti andigivioi sola
 ponacea Janpivina sola il quiditudo.
- Dabada quae conuclio andigivio, Janpivina Jan-
 45 cheta itela guion pucioi patii etaxo la conuclio
 ente de la Janpiviorum vondacari guion Salbacionem;
 equi conuclio andigivio, barum daco balia
 equi tucta eta copae daco Janpiviorum axay
 daco guion daco ccciditioe vondacari daco daco
- 50 condonati vna. Janpiviorum tucta in Salbacionem
 eta coarcti ccciditioe andigivio, balia in quiditudo
 nunc, coarctati ccciditioe axquiditudo daco con-
 unuclioem alit' lutoa, eta Salbacionem tucta
 obna vero hexacatana, ccciditioe condonati de daco
- 55 esquetio obna Janpiviorum tucta in Salbacionem
 daco, eta tucta nunc tucta Salbacionem et coarcti
 coarcti fuitur vero hexacatana.
 Et tucta pucio Janpivina ccciditioe, balia es-
 clabonem eta adigivio pucio, coarctati tucta
- 60 geygatoz et clabonem.